

Antxiñako fotografixia



Oñatiko bizikleta-zaliak Durangon 1936xan

Desafiox famau baten ondorengo fotografixia dozue hau: oñatiar pillia Durangoko Ezkurdi plazan Urkiolarako bizikleta-igoera egunian. Baiña historixia aurreko egunetan etorren. Errepublikaren denboran hiru igoera ospetsu organizau ziran bata bestiarenen ondoren: Santo Domingorakua Bilbon, Martixaren lehenengo domekan; Oñatitik Arantzazura kua hurrengo domekan; eta

handik zortzi egunera Durangotik Urkiolarakua. Urte haretan, 1936xan, Arantzazurako bigaren igoera ospatu zen eta txirrindulari oso onak hartu ebein parte. Punta-puntako bat **Federiko Ezkerra** bizkaitarra zen, aldatzetan espezialista eta *Tour*-ian ibillitakoa. Oñatin, baiña, kontrario gogorra tokau xakon: Uribarri auzoko **Klaudio Leturiaga**, Banastaingua baserriko semia. Pelia latza

euki ebein bixon artian eta espiriñan oñatiarra nagusituzan. Orduan Ezkerrak, hasarre, bizikletia harrika jaurti ei eben, Leturiagari zera botatzen otzala: *Nos veremos en Urkiola*.

Hurrengo domekan dozenaka oñatiar inguratu ziran Durango aldera, korredore bixon arteko burukiorri zertan geldiketan zan ikusi guran. Gazte asko bizikletan fan ziran; beste ba-

tzuk *Atxa eta Konpañiak* eukan *Hispano-Suiza* autobusa bete ebein Uribarriko txirrindulariaria animaitteko. Subidia oso gogorra izan eizan: Ezkerra eta Leturiaga, eukain dana emunda, pareparian ibilli ziran karrera guztian, baiña azkenian oñatiarrak irabazi eben juxtu-juxtuan Urkiolako gainean. Ukatuta geratu ei ziran bixak. Euren herriarrarenean hazainiarekin hain harro egozen oñatiarrairi fotografia-



**Jose Ramon
Kortabarria "Saramendi"
ERREKADISTA**

**Paketeak,
dokumentuak,
tramiteak eta abar.
ONATITIK-DONOSTIARA
eta tarteko HERRIAK**

Errekalde, 2-1. Esk.
Tfnoa: 78 15 72
Altuna estancoa:
Kale Barria, 19.
Tfnoa: 78 00 03



**ELKORO C.B.
KRISTALDEGIA**

San Lorenzo, 13 B
Lazarra, 3 behea
Tfnoa: 78 24 06. ONATI

**Ispiluak
Lunak
Beiradurak
Segurtasun-kristalak
Aluminiozko leihoa
eta pertsianak
P.V.C
Polipropileno
CLIMALIT**